

SUTONDOAN EVARISTA ARISTIMUÑO "27 URTE EKUADORREN"  
KIROLA JOSEBA ETXEBERRIA SORALUZE F.T.KO LEHENDAKARIA




Soraluzeko Hamabostekaria 75. alea 2003ko irailaren 26a

**piipilean**

**KOTXERIK GABEKO EGUNA**

**BRAMMM!!!**





Tornileria-estanzazioa  
eta  
extruzioa hotzean

**GOL**

GOL industriak S.A.  
Sagar Erreka, 19 45 PK  
Telefona: 34 943 75 21 00  
Faxa: 34 943 75 17 12  
20590 SORALUZE

## Iragarlearen txokoan: Mendata taberna

Kalebarren 5 / Telefonoa: 943 75 13 87

*“Nik, Gregoritok, 25 urte  
neukazenetik daroiat Mendatan”*

### Noiz zabaldu zan Mendata tabernia?

1937-1938 Bittartian hartu zebeñ tabernia nere gurasuak. Nik, Gregoritok, 25 urte neukazenetik daroiat tabernan lanian. Bizi guztia!

### Zenbat pertsonak lan egitten dozue?

4 Lagunek egitten dogu lan, batzuk sukaldian, beste batzuk barran...

### Zein da Mendataneke berezitasuna

Txipiroiak eta txanpiñoiak dira gehixen eskatzen doskuzenak jentziak. Gixaua be edarra preparatzen dogu. Pizzak bebai. Baina hori bai, errezetarik ez dogu esaten sekula, hori sekretua da!

### Zelakua da Mendata?

Mendatan giro jatorra eta sanua egoten da. Arrunta, euskaldunon modukua!



### Zein da tabernari izatian alderdi ona eta txarra?

Alde ona, jente berri asko ezagutu eta eurekin egoteko aukeria eta alde txarra, herriko eta inguruetako pelma danak aguantatzia.





## Autorik gabeko eguna herrian

NEREA ISASTI

Irailaren 22an "Herrian autorik gabe" izeneko Europako eguna ospatu zen. Hori zela eta, Deba Barranean, garraio publikoa erabiltzeko gomendioa luzatu zitzaigun. Horrela egin ezker, txartelaren kostuaren erdia bueltatuko ziguten Udaletxean. Ikustear dago zenbat soraluzetarrek utzi zuten autoa etxean autobusa erabiltzeko.

Europa mailan, aurtengoa, ekimen honen laugarren emanaldia da eta 1.500 hiri eta udalerrik hartu dute parte. Euskal Autonomi Erkidegoan 60 izan dira.

Zenbakiekin jarraituz, Euskadin 1.000 biztanleko 413 auto daude. Eta zifra hau areagotzen doa.

Jakina da autoek ingurugiroa kutsatzen dutela, alde batera utzita, noski, urtero eraikitzen diren errepide eta autobide berriek eragiten duten suntsipena. Bestalde, autoa daukagunok badakigu berau erosi eta mantentzeak zenbateko kostua duen: autoa bera, aseguruia, konponketak, erregaia,

aparkalekua...Eta ezin dugu ahaztu errepideetan egunero hiltzen den jendea.

Hala ere, gehienok nahiago dugu guzti hau pairatzea garraio publikoa erabiltzea baino. Eta hau justifikatzeko, gure "lasaitasuna"rekin zerikusia duen argumenturen bat edo beste erabiltzen dugu.

Auto gabeko eguna ospatzea ideia ona da, dudarik gabe. Baina, autoa etxean utzi eta garraio publikoa erabiltzeko, beharrezkoa da garraio publiko hau ganorazkoa izatea, eta hau ez da beti betetzen.

Gure kasuan, taxia alde batera utzita, noski, autobusa besterik ez daukagu. Eta orduoro dagoen linea bakarria Eskoriatzatik Eibarrera bitartekoa da.

Nik neuk ateratzen dudan ondorioa? Autoa edukitzea abantaila bat da, baina honen erabilerak zentzuzkoa behar du izan. Eta autoa etxean uztekoan, bestelako aukerak asko hobetu behar dira.

## Telegrapak

Kaixo irakurle!. Stop. "Argia" heldu jatzue etxera. Stop. "Zeruko-Argia" ez, aittitta!. Stop. berritutako "Argia" . Stop. modernua, eritzi artikuluz beteta datorrena... Stop. jarri Argia zure bizitzari!. Stop. espero deigun. Stop. "autorik bareko eguna"k baino arrakasta gehixao izango dabela... Stop. ze... Stop. edarra kanpainia!. Stop. bestela galdetu goizeko 7:00etan. Stop. Donostiarako autobusaren zai zereneri. Stop. je,je,je!. Stop. Sorak baino emaitza hobiak lortzia be bai. Stop. jo,jo,jo!. Stop. 20 gol bi partidutan. Stop. ai, ai, ai... Stop. baina garrantzitsuen parte hartzia da. Stop. ez?. Stop. Aupa Atzetic!. Stop. errealaren monopolixuari aurre egin!. Stop. Soraluze beti izan da Atzetic-ena!. Stop. beti atzetik behintzat bai. Stop. ordua zan. Stop. kantzauta Hamar minutuko aurrerapenez bizitziaz. Stop. Eskrz 2Zi Ny dot!. Stop. aurtun Lazkaon izango dunk festa. Stop. Itxaropenezko irteera. Stop. ia juabilatak be animatzen zareten. Stop. laztan bat denoi!

## Erreportaia

Gurean, Debarreneko 8 udalerriek bat egin zuten kanpainarekin eta Debege-sak bideratuta hainbat ekitaldi egin ziren, jendea, egun batez ez bada ere, autoaren murrizketatik atera eta horrela jendea autoari erabilpen zentzuzkoago bat emateko kontzientziatuko delakoan, beste garraio-bide batzuk erabiliaz.



Argitaratzailea:

Pii-pilean Kultura Elkarte  
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.  
Telefonoa 943 75 13 04  
comunidades.kzgunea.net/PiiPileanKulturaElkarte/EU  
pii-pilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Eguzkiñe Aldazabal, Enara Agirre, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Ane Yabar (943 75 13 04)

Logotioa: Jon Gabilondo  
(943751304 tel.)

Banaketa: Pii-pilean Ekoizpena: 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Azala: Pablo Galarraga

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pii Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZeko  
UDALA



EUSKO  
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA

## Zorion agurrak



**Goretzi Goigana**  
Urriak 6a 14 urte  
ZORIONAK!!  
Oinarre bezin jator  
jarraitu! potxola!  
Etxekuen partetik.



**Dayana Canales**  
Irailak 21 3 urte  
ZORIONAK!!  
Egun polit polit bat pasatu  
deizula, polittore!  
Etxekuen partetik.

## ODOL EMATEA

Irailaren 26  
Frontoiko ikastolan,  
arratsaldeko 7etan.

1959an  
JAIOTAKOEN  
BAZKARIA  
Urriaren 25ean  
Izena emateko telefonoa, 943751581.

## Agenda

**KILOMETROAK 2003**  
Urriaren 5ean, Lazkaon.  
Autobusean izena emoteko: Gila, Arrano eta Iratxo Goxodenda.  
Irteera: 9:00etan.



**ATLETIC-ZALEEN**  
8. BAZKARI HERRIKOIA  
Urriaren 4an, 14:30etan.  
Txurruka Jatetxean.  
Izena emateko azken eguna: irailaren 30ean Gila eta Aurreku tabernetan.

**ESKERRON OHARRA:**  
Tanborradaren antolatzaile batzordeak eskertu nahi ditu, beste urtebetez ohitura hau galdu ez dadin lagundu duten guztiak, baita Abadetxea lokalak erabiltzen uztearren eta aldi berean Plaentxi Herri Ikastetxea, Beti-Prest, Mahastia Elkarte eta Udaletxea, emandako sostengu eta laguntzagatik.

## Merkatu Txikia



## LANA

\***Ingeles, Alemaniera, Frantses eta Italiara** irakasleak behar dira. Autoa edukitzea kontuan hartuko da. Interesatuok; [recursos@cim-idiomas.com](mailto:recursos@cim-idiomas.com) (Leireri zuzenduta).



## BEKAK

\* **Unibertsitateko ikasmaterialaren sorkuntza** sustatzeko poltsak; antropologia, antzerkilaritza, arkitektura, artea, bertsojaritza, ekonomia, filosofia, fisika, glotodidaktika, historia, hizkuntzalaritza, ikasketa klasikoak, informatika, itzulpen-gintza, kazetaritza, kimika, klimatologia eta meteorologia, literatura, musika, pedagogia, psikologia...  
UEU eta Bizkaiko Foru Aldundia.  
Eskaera egiteko: urriaren 15etik 30era.  
[www.ueu.org](http://www.ueu.org) / [inguma@ueu.org](mailto:inguma@ueu.org)  
946790546



## IKASTAROAK

\***Idazle Eskola** Bergarako UNED ikastetxea eta Eusko Ikaskuntzako Asmo fundazioa. Matrikula epea: irailaren 30arte. 150 Ordu, larunbat goizetan Bergaran.  
Telef. 943769033.



## LEHIAKETAK

\***Antzuola herria** ikerketa beka. Helburua: ahozko eta idatzizko iturriak aztertuz, Antzuolako toponimia jaso eta finkatzea. Unibertsitate titulua behar da. Eskabideak aurkezteko helbidea: Antzuolako Udala. Herriko plaza,8., 20.577 Antzuola.  
\* **Juan San Martin** ikerketa beka. Mendizaletasuna eta botanika. Eskaerak urriaren 10 baino lehen Eibarko Udalean, 943707153.  
\* **XI. "Hiru Handiak"** Argazki Lehiaketa. Gaia: Mendia. 18 x 24 zm. eta 30 x 40 zm arteko argazkiak. Manuel Iradier mendi elkarteak antolatuta. Lanak aurkezteko epea: abenduaren 5a.  
Tfn.: 945286532



## BESTELAKOAK

\* **Akordeioa salgai.** 120 baxu ditu. 943795336.  
\* **Tronpeta salgai.** 943787052.  
\* **Aker arra** salduko nuke. 3 Urte ditu. Adar-motza, abere ona. 943761293  
\* **KTM 250 EXT motoa** salduko nuke. 2000. Urtekoa da. Gorkarengatik galde-tu. 646057478.  
\* **Ford Mondeo 2.0 Ghia** autoa salgai. 77.000 km. 1999 Urtekoa. 9.000 euro. Telef.: 645719884 edo 649118346.  
\* **Snowboard-erako botak salgai.** Burton markakoak. 45 1/2 zenbakia. Telef. : 679213507.

## Gutunak

## Utzi pakean!

Madarikatuak behin eta berriro Iñaki eta Asier-en heriotzak istripu hutsa izan zela esan zenutenok.

Ez da horrela ez! Asier eta Iñakiren heriotzak, heriotza politikoak dira!

Argi erakusten du hori, behin eta berriro beraien omenezko monolittoa apurtu nahi izana, oraingoan amorrubiz lurretik aterata. Nazkagarriak!

Garbi geratzen da nortzuk izan diren eta zergatik egin duten. Iñaki, Asier eta beraien izakerak berriro erabil nahi dituzte, baina alferrik dabilta. Asier eta Iñaki ez bait dira inoiz hilko, guregan maitasunez beti biziko bait dira, gurekin betirarte daudelako!

Ekimen terroristar bat gertatu da herrian, Karakaten. Bai ekimen terroristar. Guk ikusi dugunean terrorea sartu zaigu gorputzean. Zuen burua tolerantzat dezutenok, eta lotzarik gabe bakeaz hitzegiten dezutenok, zer egingo duzue ekimen hau salatzeke? Orain arte bezala, ezer ez! Badirudi zuen samina eta protesta batzuegatik bakarrik adierazten dezutela publikoki.

Guk, zuen justizia baztertzailaren aurrean protestatzen jarraituko dugu. Herri honen askatasunarengatik, dispertsioaren aurka. Eraso hau gure lagun Asier eta Iñakiren idealen aurkakoa izan da, guk beti defendatuko ditugunak, eta egunen baten Euskal Herria askatzera eramango gaituztenak. Lerro hauek gutxi dira Iñaki eta Asierren senideenganako sentitzen dugun maitasuna adierazteko. Bi famientzako gure besarkada beroena. Guri ere zuei bezala eraso hauek indartu egiten gaituzte. Beti egongo gara zuekin!

Iñaki eta Asier maitiak!, eskerrikasko zuen militantziagatik, oraindik ere militante bait zarete, hor nobait norbaiti min egiten jarraitzen bait die zuen ideiak eta borroak.

## Asier eta Iñakiren lagunak

## Asier eta Iñaki

Orain astebete, asier eta iñakik utzitako hutsuneagatik negar egin nuen, baina atzo amorroz betetako malkoak irtetzen zitzaizkidan.

Joan zen urtean mendigainean landatutako zuhaitza apurtu zuten, baina oraingoan urrunago joan dira. Oraingoan, haien omenezko monolittoa apurtu dute, apurtu, lurretik atera, golpeka erabili, lauburu kendu eta desagertu...

Zer min egiten diote lurpean sartutako bi gaztek?

Ez al dute nahikoa min egin? Ez al da nahikoa izan bi famili eta lagunak Asier eta Iñakiren barre eta alaitasun gabe lagatzea?

Haietaz badirudi nahikoa ez dela. ("haiek" esaten dudanean, ez dakit zehatz zeinengatik esaten dudane, ez baitute lotsarik ezta beren aurpegia emateko ere. ausartak behintzat ez dira ez). Badakite nola min egin eta egiten dute.

Ez zait legezkoa iruditzen.

Utzi bakean Iñaki eta Asier.

Utzi gaitzazue Asier eta Iñakigaitik negar, barre edo nahi duguna bakean egiten.

## Oihana Aizpuru Txurruka

## Zer irizten dotsazu?

Irailaren 22a, pasa den astelehena, "Autorik Gabeko Egun" moduan izendatu zuen Europar Batasunak. Urtean zehar, era horretako hainbat kontzientziario kanpaina antolatzen dira baina ez dago guztiz argi gizartearengan duten eragina eta zentzua.

# Eraginkorrak dira holako egunak? zer egin bihar litzake benetako konponbidia emoteko?



**Manoli Ribas**  
39 urte  
Ileapaintzailia  
Ekimena ona izan da, baina ez dau askotarako balio, atasko haundixaguak eragin ditu. Lanera jua bihar dabenak kotxia hartu dau. Herrixetan ibiltzeko bizikletendako bidiak egin biharko lirake jendia ohitzen juateko bizikletan ibiltzera.



**Pedro Mari Alberdi**  
44 urte  
Fresadoria  
Holako zeozer egitteko egun aproposagua asteburuko egun bat litzake, lanegun baten jentia kotxia bihar dau derrigor. Gainera urtian egun bat bakarrik egittia gutxi da. Nik kotxia hartu neban lanera juteko.



**Ektor Garitano**  
31 urte  
Tailarrian lanian  
Holako egunak egittia ondo dao, nahiz eta egun batekin bakarrik ez dan asko agitten. Kotxia ez hartzeko alternatibak jarri biharko litzazke, autobusak doain eta sarri-xao. Nik ez neban kotxerik hartu, kalera jeisteko bizi-kletia hartzen dot eta.



**Marea Eugenia Arrazola**  
60 urte  
Etxekoandria  
Holako egunak egittia ez dao oso ondo, jende asko dagualako lana kanpuan daukana eta derrigorrez kotxia hartu bihar dabena. Zaila izaten da holako egunetan jentia kotxia ez hartzia. Nik ez daukat karnetik ezta kotxerik be, eta ez neban hartu.



**Gotzon Odriozola**  
41 urte  
Udaltzaina  
Holako egun batek ez dau ezetarako balio, urtian egun baten bakarrik egittia ez da nahikua. Egin bihar dana da jentia mentalizau, kalera oinez jaitsi dadin eta kotxia etxian laga deitan.



**Julia Hernandez**  
41 urte  
Etxekoandria  
Ondo dao holako gauzak egittia, zenbat eta kotxe gutxia ibili, gero eta kutzadura gutxiago egongo da. Pasatzen dana da jente askok lanera juteko bihar dabela kotxia eta derrigorrez hartu bihar dabela. Egun bakar batek ez dau asko konpontzen.

**GILA TABERNA**  
Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik  
**Gosarixak eta pintxo goxo goxuak !!**  
Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

**HNOS. BENITO ANAIAK**  
ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK  
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe  
Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

# ARGIA ezagutzera emateko kanpaina Pil-pileanen eskutik

Ezagutu ARGIA astekari berritua

PILPILEANen ale honekin batera, ARGIA astekariaren 3 ale doan jasotzeko aukera eskaintzen duen postal bat jasoko duzu.

ARGIA uda aurretik eraberritu zen. Itxuraz eta mamiz berritu da: diseinu gaurkotuagoa, itxura gazteagoa, informazioaren antolaketa berritzailea... Iritzi saila ere zabaldu egin da eta aisialdia eta kultura nabarmendu egin dira. Dena helburu bakarrarekin; informazioa, analisia eta entretenimendua astero kalitatez eskaintzea euskal irakurleei.

Eskaintza berezia

PILPILEANen irakurleentzat

Berrikuntza hauek direla medio, ARGIA astekariak bere burua ezagutzera emateko kanpaina bati ekin dio. PILPILEANek ere, ARGIA 3 astez doan jasotzeko aukera berezi hau eskaini nahi die bere irakurle gutzietei.

ARGIA eraberritua ezagutu nahi

baldin baduzu beraz, postala bete eta bidali (ez du seilurik behar). Bestela, 943-371545 telefonora deitu (Xabierrez galdetu) edo zure datuak eta eskaera [harpide@argia.com](mailto:harpide@argia.com) helbidera bidali.

Eta gero... gozatu ARGIA!



## Egunkariko zozketa egin da; 20 sari

Irailaren 22an, astelehenean egin zen Berria-ren aldeko diru bilketan saldutako errifren zozketa. Guztira 20 zenbaki izan dira sarituak, 3 hilabeterako 10 harpidetza (Soraluzeko Udalaren eskutik) eta Berria-ko 10 kamiseta zozketatu dira. Herri Batzordeak jakinarazi digunez, zenbaki gehien jabeen izenak jasota daude baina badaezpada jakinaraztea komeni da 943751304 telefonora deituta.

### SARITUTAKO ZENBAKIAK

Harpidetzak	Kamisetak
809	2199
2539	1869
2600	222
1216	105
759	2888
629	2239
327	2669
1774	2473
1331	692
1400	530

## Astelehenetik aurrera trenbidea itxita izango da



Astelehenean "Erregetxe eta Olako Zubi berria lotzeko saheizbidea egiteko lanak hasiko dira eta 8 hilabeteko iraupena izango dutela aurrakusten dute. Estazio parean egun dauden aparkalekuak desagertu egingo dira eta Saziako aparkaleku berria zabalduko da.



Tailer zahar bat bota da Izartu planaren barruko lanen barruan, joan zen asteartean Estazioko 5. eraikina. Udalak eraikinaren erabilera eza zela eta hartu zuen eraikina botatzeko erabakia eta 3.600 euroko kostua izan dute eraisketa lanek.



Garapen Eramangarrirako Diputatua herrian Joan zen ostegunean, Luis Mari Oyarbide diputatua izan zen herrian. Oyarbide pozik agertu zen "Gipuzkoan 310 kilometrotako Bizikleta Bidea eraikitzeagatik".



## Limpiezas Trejo, S.L.

Rekalde, 30 behea  
Tel.: 943 75 25 57  
Faxa: 943 75 25 56  
20.590 SORALUZE

**Limpiezas  
industiales**



## EDURTZA Kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua

**Eguneroko  
menua eta  
pintxoak**

**Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze**

## GAP Programaren esperientzia pilotua ezarriko da Debabarrenean



Joan zen ostegunean aurkeztu zuten Eibarren, datozen hilabeteetan Debabarrenean ezarriko den GAP (Global Accion Program) egitasmo pilotua. Egitasmoa Debegesak kudeatuko du eta 1.000 familiak eguneroko bizimoduan energia aurrerako prestaketa izango da helburua.

Egitasmoan izena ematen duten familiek, lau hilabetez, gutxiago gastatzeko eta ingurumena zaintzeko aholku praktikoak biltzen dituzten lau eskuliburu jasoko dituzte etxean. Eskuliburu

bakoitzarekin batera galdera sorta bat bidaliko zaie, egin dituzten aurrerapenak ebaluatzen laguntzeko. Programa burututakoan, parte hartu duen etxea ekologikoa dela egiaztatzen duen Nazio Batuen ziurtagiria eskuratuko du.

Aurkezpenean azaldu zuten, lehen fase honetan, 1000 eskuliburu sorta bakarrik bidaliko dira Debabarreneko etxeetara. Egitasmo honetan izena emateko etxetik banatuko diren fitxak bete edo [www.ingurumena.net/gap](http://www.ingurumena.net/gap) helbidean eman dezake izena.

## Asier eta Iñaki-ren oroitarria hautsita



Joan den ostiralean, Irailaren 19a, Soralezko Karakate mendian jarritako Asier Heriz eta Iñai Saezen omenezko monolitoa lurretik erautsi eta mailatuta agertu zen. Monolito hau, orain bi urte jarri zen, Asier eta Iñakik, Lurdes Txurruka preso bisitatzeraz zihoazela, istripu batean bizia galdu ostean. Monolitoa burniz egina da, oso astuna eta metro erdi lurperatua zegoen inork kalterik egin ahal ez izateko. Alperrik izan da ordea. Orain urtebete ere, 1. urteurrenaren bueltan, orogarriaren alboan dagoen haritza moztu zuten ezezagun batzuk.

## Eibarko erasoaren kontrako gaitzespena

Astlehenean egin zen Udal Gobernu batzarrean, astlehenean bertan Eibarko Sozialisten Etxearen kontra egindako eraso gaitzesteko erabakia hartu zen aho batez.

## Elkarretaratzea Herreran gertatuagatik

Joan zen ostiralean, 30-en bat lagunek elkarretaratzea egin zuten Plaza Berrian, Herreran gertatutako salatzeke. "Errepresioa ez da bidea!" lelopean, Ertzaintzaren jokoera "errepresioa" gaitzetsi eta "gatazka politikoari benetako konponbidea emateko ordua" dela adierazi nahi izan zuten.



Itzaropena elkarrekin beste behin antolatu duen irteeran parte hartuz, 30 lagunetik gora joan ziren asteazkenean Logroñoko jaietara.

**Argitalpen honen laguntzaile**



# kutxa

zuri esker

Instalazioak  
Berrikuntzak



KIRU  
muntaiak

## Kiru

# Muntaiak S.L.

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu  
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Amillaga, 5 20750 Bergara  
Tfnoa 943 75 13 12  
Eskuko tfnoa 615 70 27 65



Garraioa beste era batera antolatzeko neurriak hartu ezean, ibilgailu kopuruak gora egiten jarraituko du etenik gabe.

## Auto gabeko eguna noizko?

Joan zen astelehenean, Europar Batasunak "Autorik Gabeko Eguna" moduan izendatutako kanpainarekin bat egin zuten Erupako herrialde askok. Gurean, Debabarreneko 8 udalerriek bat egin zuten kanpainarekin eta Debegeak bideratuta hainbat ekitaldi egin ziren, jendea, egun batez ez bada ere, autoaren morrontzatik atera eta horrela jendea autoari erabilpen zentzuzkokoago bat emateko kontzientziatuko delakoan, beste garraio bide batzuk erabiliaz. Gizartearen erantzuna bestelakoa izan da.

Gehienek autoa hartu zuten

Debegeatik jakinarazi digutenez, igandeko txirrindulari martxan 150 lagun inguruk hartu zuten parte. Kanpainaren barruko egunik garrantzitsuenak astelehenekoa zen ordea, "Autorik Gabeko Eguna", baina dirudienez autogidari-rik gehienak, egunaren izendapenaz jakitun izanda ere, autoa erabili zuten. Egundarrunt batean izaten den besteko trafikoa sentitu zen herrian. Garraio publikoa hartu eta beronen kostuaren erdia ordaintzeko eskaintzari dagokionez ere, asteazken arratsalderarte behinipein ez zuten inork Udaletxean diru-eskaririk egin. Kaleko jende askoren esanetan, "era honetako kanpaina bat lan egun batean jartzeak asko zailtzen du jendearen parte hartzea, edo beharbada agerian uzten du autoarenganako daukagun morrontza eta alternatibarik eza".

Garraio publikoaren gabezia larriak

PESak kudeatzen duen autobus zerbitzua da Soraluzek duen garraio bide publiko nagusia. Beste gabezi askoren artean, eta arrazoia edozein dela ere, ordutegian izaten diren atzerapen edo hutsak dira garraio bide publikoa erabiltzeko oztoporik handienak. Astelehenean bertan, herritar batzuk salatu dutenez goizeko zazpiretan Donostiarako zen autobusa ez zen Soraluzetik pasatu eta asteartean berriz ordua baino lehen pasatu zen. Horretaz gainera, Soraluzetik Elgoibar-rrerako eta Bilborako joan etorri zuzenik ezak ere asko baldintzatzen du zerbitzuaren erabilgarritasuna. Prezioei dagokie-

nez, urtero izaten duten etengabeko igorak, kostua, bi pertsona daramatzan autotz egindako bidaia batena baino handiago izatea ekarri du. Donostiarako txartelak esaterako 4,90 euroko prezioa

*"Era honetako kanpaina bat lan egun batean jartzeak beharbada agerian uzten du alternatibarik eza".*

du eta Eibarrerakoak 0,90ekoa. Gabezi guzti hauek, garraio publikoa alde batera utzi eta norbere autoa hartzera bultzatzen



Felix bere lantegian mekanika lanetan.

tzen ditu herritarrik gehienak. Garraio publikoarekin inolako arazorik izan ezker herritarrek Udaltzaingotik bideratu ditzake bere kexuak.

Autoaren inguruko industria

Gure gizarteak autoaren inguruan eraiki duen industriaren garrantzia ere begibistakoa da; auto egileak, pieza fabrikatzaileak, saltzaileak, gasolinerak, konponketa tailerrak, auto eskolak, aseguruak, errepide azpiegiturak, zergak... Soraluzen esaterako, 3 mekanika tailer, 2 txapako eta auto saltoki bat daude. Gainera herriko lantegi askok eta askok, azkenean autoen barneko osagarri izango diren pieza produkzioan lan egiten dute edo produkzio honekin erlazioa duten makinagintzan. Ekonomia orokorrarekiko duen harreman estua izan liteke, arazari benetako konponbidea ematea galarazten duen arrazoi nagusia. Renove Plana izeneko egitasmoaren inguruan esaterako, "jendea auto berria erostera bultzatzeko trikimailuak" direla adierazi digute izan garen tailerretako batean.

*Garraio publikoa*

*"Donostiarako txartelak 4,90 euroko prezioa du eta Eibarrerakoak 0,90ekoa."*

Kutxadura eta berziklapena

Kutxadurari dagokionez, Autos Felixeko arduradunak jakinarazi digunez "autoei airea garbitzeko katalizadoreak



jarri zitzaizkienean berunik gabeko gasolina erabiltzera behartu zituzten auto gidariak". Lehenago %3,5 eko berun portzentaia onartzen bazen ibilgailu berriei 0,5 ekoa onartzen omen zaie bakarrik eta "horrela askoz gutxiago kutxatzen dute". Hala ere, aitortu digunez, legedi berriarekin ibilgailua txatartegira eramatean, kontu handiz batzen dizkiozte olio, gasolina eta ez izozteko likidoa.

Tailarrean bertan batutako olio eta neumatikoak ere birziklatu egiten omen dira.

Soraluzen 2.087 auto

Udalak helarazi dizkigun aurtengo datuen arabera 2.087 auto inguru daude Soraluzen. Beraz, 4200 biztanle inguruko herria dela kontuan hartuta, 2 biztanleko ibilgailu bat dagoela esan liteke.



**IKER ALDAZABAL**  
Hirigintza Zinegotzia

Zer ondorio etara ditu Udalak aurrean egin daben herriko trafikuen azken azterketatik ?

Kontuan izanda, herriko erdi guniak jasaten daben trafiko kontzentraziñua. (Zubi Nagusixa, Santa Ana kalia, Kalebarren...) Gune hau arintzeko, Izartu programaren barruan hirigintza iharduera zehatz batzuk burutu eta burutzen ari dira udalerrri mailan.

Zer egingo da arazo honeri irtenbidia emateko?

Burutu dan lehenengo ekintza, Oleako zubixa egitia izan da. Honen bitartez ibaiaren bi aldiak batzen dituan az-

piegitura burutu da. Errepide honi jarraipena emateko, Olea eta trenbidia batuko dituan sahiesbide berri bat egingo da. Ondoren, trenbidiaren egokitze lanak amaituko dira. Guzti honen helburua erdi gunia arintzia izango da.

Semaforuak kendu eta herri erdixa oinezkuendako bakarrik jartzeko asmua zertan da?

Aurretik aitaturako azpiegiturak amaitu ostian, herri mailan errepide aldetik zirkuitu itxurako saria lortuko da. Oin herrixa zeharkatzen daben Eibar-Bergara errepidian daren semaforuak desagertu egingo dira norabide bakarreko bidia bihurtuz. Iharduera guzti honen ahalbideratzen dabe oinezkoentzako gune berririk sortzia herri erdixan.

Garraio publikuaren inguruan kexa asko entzuten da.

Betidanik entzun dogu garraio publikuari buruzko kexa ugari eta guzti hau izan leike asko ez erabiltziaren arrazoietakoa bat, beste estatu batzuekin alderatzen badogu. Gaur egunian ikusi leikenez, gehixenguk bere ibilgailu pribatua erabiltzen dau. Beraz, honen aurrirak erakargarrixagua izango litzaken garraio politika bultzatzia izango litzake

Gainera, auto kopuruak goranzko joera etengabea du eta jakina da dagoeneko Soraluzek duen arazorik garrantzitsuenetako bat dela. Guzti honen inguruan Udalak duen eritziaz eta azpiegitura mailan eginen diharduen lan ugarietz jakitun izateko, Iker Aldazabal hirigintza zinegotzi berriarekin hitz egin dugu:

irtenbidietako bat, herritarren kontzientziatzearekin zuzentuz.

Tranbia nundik pasatuko da?

Udal mailan ekintza honi buruz ez dago proiekturik. Beraz zerbait zehatz dagan momentuan herri mailan jakinaraziko da.

Zer pentsatuarazi dotsu autorik gabeko egunak?

Entitate publikoen aldetik ekintza honek bultzatziaren aldekoa naiz, ia jentia kontzientzia hartzen hasten dan. Ez da lan erreza, baina hori da bidia epe ertain eta luze batera emaitza onak lortu ahal izateko.

Zer egoeratan aurkitzen da Tokiko Agenda 21 prozesua udalerrri mailan?

Momentu honetan Soraluzeko ingurugiruari buruzko diagnostikoa eginda dago. Ondoren diagnostiko honetan oinarrituta, ekintza plan bat gauzatuko da herriko entitate publiko eta partikularren parte hartzearekin. Guzti hau Foru sozial batzuen bitartez gauzatuko da, beraz, herritar guztiei luzatzen dotset gonbidapena foru honetan parte hartzeko euren eritzia emon deitzen.

**JAVIER ALONSO ZELAIETA**

434 ZENB.KOL

**HORTZ  
KLINIKA**

MEDIKU ESTOMATOLOGIA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613



Barra kargadore automatikoak  
eta makina bereziak

**ETXEHUN, S.A.L.**

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: [etxehun@teleline.es](mailto:etxehun@teleline.es)

[etxehun@euskaltel.net](mailto:etxehun@euskaltel.net)

20590 SORALUZE

Gipuzkoa

**SAN ANDRES**  
Iturgintza

*Iturgintza, Gasa, eta  
Berogailuak  
Sukaldeak eta bainuak*



Errebal kalea 2 behea  
Tfnoa 943 75 16 46

**GAZTELUPE**  
taberna

tel: 943 75 20 81



## Gaztañerre azokako prestakizunak



Joan zen ostegunean egin zen udalean 2003ko Gaztañerre azoka antolatzeo baserritar eta artisauen bilera. Bertan aurtengo azokak izango dituen ezaugarriez berba egin zuten partehartzaileek eta Udaleko eta Debemeneko ordezkariak.

Aurten ere urteroko ezaugarriak eutsiko zaie eta Soralezeko baserritar eta artisauak bakarrik izango dute aukera azokan parte hartzeko. Bi baserri-

tar nagusi omenduko dira; aitona eta amona bat

Baserritarren liburua azokarako

Aurtengo nobedade nagusi Soralezeko guztien berri jasotzen duen gidaliburua izango da.

Pil-pileanen baba txapelketa

Pil-pileanek baba prestaketa txapelketa, herri babajana eta arratsaldean kontzertua izango da.

## Achiariren emanaldia atzeratu egin da



Ostiral honetarako aurikusita zegoen Beñat Achiar eta Joel Merah-en musika kontzertua atzeratu egin da.

## Bertso Antzerki Lehiaketa Euskal Herri osorako

Pil-pilean Euskara Elkarteak, Ibilixa Ibilixan Bertso Eskolak eta Udalak antolatuta, Soralezeko I.engo Bertso Paper Lehiaketa antolatu dute. Lehiaketa honen helburua Euskal Herri osoan bertso jartzaileak bertsogintzaren genero honetan lanak sortzera bultzatzea da. Horrela, bertso antzerki multzo bat osatu nahi da, gero bertso eskolak tularatu ditzaten..

Lanak aukezteko epea urtarrilaren 3 artekoa da eta 400 euro eta 200 euroko sari mamitsuak izango dira. Antzerkiak 20 minutu izan bearko ditu gutxienez.

## Pil-pileanena Web orririk ikusiena

Pil-pilean Kultura Elkarteak eta Ezoziko Ama Abesbatza herriko elkarteek Kzgunearekin batera web orria ipini zuten martxan orain dela 3 hilabete Kz Erkidegoak ekimenaren bitartez. Kz. Orain arte 165 zentru irekita izan dira Euskadi osoan.

Elkarteen lana saritzearen, Kzgunetako arduradunak hamabostero

web orri onenak aukeratzen dituzte. Kz erkidegoa atalean. Pil-pilean Kultura elkarteak bi aldiz nabarmendua izan da bere edukiengatik. Aipamen bat uda aurretik izan da eta azken abuztu osoa eta iraileko lehen bi asteetan destakatu bezela agertzen da Kz Erkidegoak web orrian.. Helbidea: [comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU](http://comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU)



# Belarrak

**Loradenda eta belardenda**

*Erosketak etxera eramango dizkizugu*

**Telf. 943 75 30 11**



**ARRATE IRRATIA**

asteartero  
12:40an

*Soraluzeko berriak zure etxean.*

*Pil-pileanen eskutik.*

# *Bolia*

**taberna**



Etxaburueta  
Tel.: 943 75 11 04  
20590 Soraluze

# Juan Mari

*Arraindegia*

*Eguneroko arraina eta konjelatuak*



Merkatu Plaza  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 24 40  
Partikularra 943 74 03 69

# Evarista Aristimuño

*“Indigenen mugimenduak indar haundixa hartu dau Ekuadorren”*

Azkoitiko bere arreba Ritaren etxean aurkitu dugu Evarista. Hiru hilabete pasatzea etorrita dago Ekuadortik eta elkarrizketa egin eta hurrengo egunean Quitorako hegazkina hartzekoa da berriz.

Evaristak berrogehitamabi urte daramatza Euskal Herritik kanpora, horietatik hogeitazazpi Ekuadorren pasatu ditu eta ohituta dago ezer askorik gabe aurrera egiten.

Zela hartu zenduan monja sartzeko erabakixa?

Ba nik uste dot sekula ez nebala pentzau ni monja izan neikianikan, errebeldiena nintzala esaten zeben eta. Guk askotan ez dakigu zela baina gauzak holaurtetzen dabe, Jangoikua izango da edo. Ni beti nere aurreko ahiztia juango ete zan nenguan, oso txintxua zan eta. Neri misiñuetako kontuak irakurtzia asko gustatzen jatan baina pentzaten neban nere seme alaban bat edo juango zala (barre egiten du). Nik uste dot jangoikuak onenak ez dittalau bilatzen.

Zer topatu zenduan lehenengoz Ekuadorrera jua zinanian?

Oin 27 urte jua nintzan, ohianera. Orduan indigenak bizi ziran han, baina petroleua azaldu zanian barrura bialdu zittuen. Ondoko probintzia danetatik jente asko etorri zan. Han herri txikixak egitten hasi ziran kanpotik etorritakua eta ohian barrutik urtetzen zebena. Orduan lur jaberik ez zeguan. Garai hartan geu ibiltzen ginan misionero kaputxino moduan batera eta bestera, gaxorik edo zaurituta zerenei laguntzen. Jentia batu eta antolatzen laguntzen gontzen, indar pixkat euki zeixen. Gogorena zan, Estatu Batuetako petroleo kanpamentuak zeukezen komodidadiak ikusi eta bertakua urik eta argirik barik egotia. Han 5 urtian egon nintzan. Gero subtropikuan, Riosen onduan eta azkenengo 13 urtian Quiton.

Eta Quiton zertan lan egin dozu?

Ez jatan gustatzen. Kapitala eta bizi-modu diferentia. Quitora heldu eta aste-betera, eskatu zeben kartzeletara juateko eta neu jua nintzan beste Toledoko batekin. Eta horrek harrapau egin nau! Gogorra izango da?

Bai. Ez da erreza, baina norberak be gauza asko ikasten dittu. Bat da, ez jui-ziorik egittia zegaittik daon kartzelan. Han gauza asko ikusten dira.

Espainiar eta euskaldunak be badare ezta?

Bai. Gehixenak droga ekartzarren. Ez dira drogatzen diranak asko, baina... engañau engañau ez baina premiñare-



**Evaristari begirada xamurtu zaio Ekuadorretik Altsasura eta Zumaiara etorritako Ander, Aitor eta Nahiaren bisita jaso duenean.**

*“Estatu Batuak bere estrategiak dauzka, ebanjelismua, Cuerpo de Paz... jentia banatzeko. Hola ezin da herririk egin!”.*

kin batekin darenak errezago jausten dira. Han drogiakin harrapatzen dittueneri 8 urteko zigorra ipintzen dotse gutxienez eta hortik gora askori. Eta hori oso gogorra da. Hemengo moduan, han be drogiagaittik beteta daukez kartzelak. Eta bertakua, oilo bat harrapatziarren be kartzelaratzen dittue batzuetan.

Ze kasu ezagutu dozu?

Nik bizi izan dot esperientzia bat sekula ez nebana usteko. Urte bixan egon nintzan han bertako neska batengana juaten astero astero. Gu hasi ginanian, barrixa zan. Ume bat zeukan 4 urtekua eta beste bat hantxe euki zeban. Zan Urruneko Unibertsitateko idazkarixa. Akusau zeben diruen erabilera okerragaittik baina berak esaten zeban “nik zela? Ez neban barren dirurik erabiltzen!”. Oso andra jatorra zan. Desesperauta zeguan. Nik agindu notsan neuk berba egingo nebala fiskalakin eta juczakin. Handik astebetera libre geratu zan. Inpotentzia haundixa sentitzen da askotan... dirurik ez badao...Txarrena da, gaxorik dagan jente asko daguala kartzelan.

Pobrezia haundixa dago?

Bai. Gainera oin txartu egin da egoeria asko. Oin bi urte dolarra ipini zeben diru moduan eta jentia dana galdu

dau. Len sukria zan hango dirua. Ni akordatzen naiz jua nintzian 1.000 pezeta kanbixau han eta 300 sukre emoten zittuen. Hiru astetan, 25.000 sukrekin 5 lagunendako aste guztiko jana erostetik, dólar batekin 5 sagar eroatera pasau zan. Esplotaziño haundixa dago. Petroleren onduan dagan kutxadurana eta horrek sortzen daben kantzerrana be izugarrixa da. Gainera Estatu Batuak bere estrategiak dauzka, ebanjelismua, Cuerpo de Paz... jentia banatzeko. Hola ezin leike herririk egin. Latinoamerika Estatu Batuen ipurdixa da.

Eskola txiki bat zeguan eta han ipini zeben letrero haundi batekin “Coca Cola”. Harek eta litro esniak berdin balio zeben eta ume danak jolasorduan hauraxe eraten. Kanpotik datorrena beti ona, eta bertakua txarra. Azkenian mentalidade hori dauke, beti despreziauta bizi izan diralako.

Eta horren aurrrian badago erresistentziarik?

Bai. Oin indigenen mugimenduak indar haundixa hartu dau. Indigenak beti egon dira baztertuta baina oin indar haundixa dauke. Horrek antolaketia dauke haundixa eta jentia preparau egin dabe kanpora ikastera bialduta argixenak. Horrek gauzak oso argi esaten dittue, edozeineri. Atentziñua deitzeko modukua da. Oin hilabete batzuk diputau bati asunekin emon zotsen zigorra eurak nahi ez zeben gauza bat firmau zebalako. Hango gobernuari bildurra emoten dotse. Indigenak eta hemen basarritarrak lirakenak errepreziño haundixa hartu izan dabe baina gero eta gogorrago dare.

## Futbola

# J. Etxeberria (Sorako Lehendakaria) "Jentia konturatu bihar da klubak herrixan biharra daukala"

Soraluze Futbol taldeak aurten zuzendaritza berria dauka eta denboraldi hasera dela eta, klubaren nondik norakoetaz jabetzeko Joseba Etxebarria presidentearekin hitz egin dugu. Berak argi eta garbi utzi digu bera ez dela klubaren "mandamasa", erabakiak denen artean hartutakoak direla baina presidente legez berari egokitu zaiola aurpegia ematea.

Zeintzuk osatzen dozue zuzendaritza?

Juan zan urterarte zuzendaritza osatzen zeben taldiak ziklo bat bete dau eta errelebu emoteko lan talde bat osatu dogu; Aitor Agirre, Jokin Andres, Dani, Alvaro, Mikel Tornos, Kosme, Torrientes, Pitxi, Jon Zerrajon eta Joseba Etxebarria. Baten bat ahazten bajata, mesedez barkatu diezadala. Futbolakin lotura haundixa izan dogun jentia alkar-tu gara. Esperientzia hartu bitartian Juan dan urteko zuzendaritzako kidien laguntza izango dogu gabonak arte.

Zuek zuzentzen baino jokatzan bihar zenduen ez?

Bueno ez dakit, gaztiak gara baina futbol munduan jokalaria moduan egin beharrekuak eginda dauzkagu. Oin gure lana kluba ahalik eta onduen eruatia izango da.



Ze egitasmo daukazue klubarendako?

Nahi, nahi gauza asko baina ... Gure intetziñua haize barri pixkat sartzia da eta horretarako hainbat proiektu dauzkagu; primak igotzia, web orri bat zabaltzia, kluban funtzionamendua informatizatzea...

Belar artifiziala noizko?

Oin momentu hontan gai hau geldi dago. Uda haseran tekniko bat etorri zen eta belar artifizial mota ezberdinak erakutsi zizkigun baina hontarako diru falta dago. Infrastruktura guztiak 40-50 milioi balio ditu.

Bazkide kanpainia zela doia?

Klubak 300 bat bazkide ditu eta hil honen 13-an bazkide kanpainiakin hasi ginan. Bazkideen batzbesteko adina 50 urtetik gorakua dala konturatu gara eta gure helburua jende gaztia erakartzea da. Jentia konturatu bihar dau klubak herrixaren laguntza bihar dabela. Bazkide egitiak 21 euro balio dau gizonetarako eta 12 euro emakumetarako. Ia 400 bazkide lortzen ditugun aurtengo denboraldirako.

Eibar aldera mutiko asko jauten dira, zela ikusten dozue etorkizuna?

Pentsatzekua dan moduan, zuzendaritzak uoi ez jaku ondo iruditzen baina pertsonalki egoera ulertzen dogu. Guk jokatzan genduanian be, Eibar moduko talde bat gure bila etorri ezkerro zeinek esango lotsake ezetz?. Horrek guri min emoten dosku klub moduan.

## Mendizaletasuna

### Karrantzako Ranerora irteera eta haitzuloetara bisita

Domeka honetan, Soraluzeko Mendi Taldeak Bizkaialdeko Karrantzako ingurneak ezagutzeko egun osoko irteera antolatu du. Goizaldean Ranero mendia igoko dute eta arratsalde partean bertako haitzulo ezagunak bisitatu-

ko dituzte. Aipatzekoa da haitzulo hauetan dauden estalagmita eta estalaktita ikusgarriak. Hauek munduan dauden egitura bitxienetakoak dira eta beraien baliokideak Australia aldean ikusi daitezke soilik.

## Aerobika

### Izen ematea zabalik

Eider eta Marianek zuzendutako Aerobik taldeak urriak 1 ean emango dio hasiera aurtengo kurtsoari eta izen emateari. Nagusiek gaueko 9:30etatik 22:30etara bitartean izango dituzte saioak, astearte eta asteazkenetan. Gaztetxoek berriz astelehen eta asteazkenetan 16:45etik 17:45etara.

ARRANO  
*tabernia*

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera

Telefona 75 24 09

LAUDIN

PROIEKTU ETA DISEINU INDUSTRIALA

Industrialdea, z/g      ff: 943752150  
138 Postakutxa      Faxes: 943752118

**SORALUZE**



# Enara Agirre

*“Maitte nabn jentia barik ezingo nintzake bizi!”*

Iraila amaitziar dago eta udazkena be heldu jaku konturatu orduko. Zuhaitzetako hostuen moduan nik be alde egitten dot Pil-pileanetik Ingalaterra aldera; baina zuek, irakurle maittiok ez kezkatu, Kale kantalianek oindio makina bat elkarrizketa egingo dittu eta, hemendik aurrera Xuban eta Eduardon eskutik. Nere elkarrizketak irakurri dittuzue, oin neria daukazue esku artian despedida moduan. Abestixak esaten daben moduan “agurrik ez, soilik ikusi arte”.

**I**zena, abizena edadia ta lanbidia.

Enara Agirre, 20 urte ta ikaslia.

**Gustoko janarixa?**

Lasaña begetala.

**Eguneko momentu bat?**

Ohera sartzekua. Eguneko burukomin eta kezkek alde batera lagata lasai egotia eskertzen da.

**Afiziñoren bat?**

Irakurtzia, mendixa eta bidaiatzia.

**Zenbakixa, koloria, animalixa ta abestixa.**

7xa, urdina, astua eta Xalbadorren Heriotza.

**Zer falta jako Soraluzeri?**

Uuff ..., gauza asko!!! Ganorazko Kultur Etxe bat bihar biharrezkua da.

**Eta zer dauka soberan?**

Jende jatorra eta umore ona.

**Zer barik ezingo ziñake bizi?**

Maitte nabn jentia barik ezingo nintzake bizi.

**Zer miresten dozu?**

Ezeren truke dana emoten daben jentia.

**Eta zer ezin dozu jasan?**

Gizurretan ibiltzia eta faltsukerixia.

**Zer ez dozu sekula ahaztu bihar?**

Bizitzia laburra dala eta ez dakigula hemendik noiz juango garan. Bixen bi-ttartian momentua bizi!

**Pil-pileanien 3 urte egin ostian, ze baloraziño egitten dozu?**

Oso ona. Pil-pileanekuok familixa haundi eta berezi bat osatzen dogu. Urte honetan asko ikusi, ikasi ta bizi-tzeko aukeria euki dot. Bilera luziak eta egindako lanak benetan merezi dabe Pil-pileanek bizittasun haundixa emoten dotsa herrixari. Bye, bye!

## Bertso Begiz

*Hiru urtian Pil-Pileanen  
lan eta lan, jo eta su  
ezeren truke bestiendako  
duzun dana eman dozu  
oin alde, hemendik at  
hartuzizu Pil-laztan bat  
ta goguan euki eizu  
maitte zaittuan Pil-familixa  
zure zain hemen daukazu*

*Eneko Beretxinaga*

*(Doinua: Iparragirre abila dela)*



Enara Agirre



**PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxe 943752461  
E-mail: [general@pascualchurruga.com](mailto:general@pascualchurruga.com)  
Errekalde 21 20590 SORALUZE

## Mendata taberna



**Berezitasunak:**  
**Txipiroiak, Barazki**  
**Menestra, Gixauak...**  
**Asteburuan plater**  
**konbinatuak**  
**Enkarguak etxerako**  
**( bazkariak eta afariak )**  
Kalebarren, 5  
Tfnoa 943 75 13 87

## Argazki zaharra



# 1941-eko San Inazio Bandiaren kalejiria

**1** 941. urtian San Inazio Musika Bandiak egindako kalejiria da irudikua. Bertan azaltzen dira, Antonio Larrañaga, Agustin Arizaga, Anjel Galarraga eta Ramiro Larrañaga musikak eta, Juan Carlos Placencia, Pedro Mari Galarraga eta Juan Mari Altuna gaztetxuak beronen inguruan.

*Emilitak utzitako argazkia*

## Lehiaketa

Zein da argazkixan agertzen dan basarrixa?



*Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!*

DEITTU  
943 75 13 04 ra

Aurreko irabazlea: Elene Garai  
Erantzuna: Ernizketa



## MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10  
Telefonoa 943 75 20 91  
Baltegieta, 6  
Telefonoa 943 75 13 99  
SORALUZE

## ARMENDIA JATETXEA



Ezozl Auzoa, 11  
20590 Soraluze  
Tfnoa 943 75 10 02

**Sukaldaritza tradizionala**

## TXOKO KAFETEGIA



*Kafe ederra hartzeko txokorik onena!*

*Kalebarren 22 behean, telf: 943751789*



## IÑAKI IÑARRA

HARATEGI ETA  
URDATEGIA

Kalebarren 29  
Tfnoa 943 75 12 49  
Soraluze



behar duzun informazioa  
astero zure etxean

BETE TXARTEL HAU ETA JASO 3 ALE DOAN

Eskaintza berezia

**Bete banatutako  
fitxa eta jaso  
ARGIA dohain!!**



eta



**Euskarazko prentsaren  
alde!**

## Soraluzeko bertso-antzerki lehiaketa

### OINARRIAK

- 1.- Euskal Herri osoko bertsozale eta bertso jartzaile gutxiei zabaldua.
- 2.- Lanak aurkezteko epea: Urriaren 3tik Urtarrilaren 3ra bitartekoa izango da.
- 3.- Lanak hurrengo helbidera bidali beharko dira: Pil-Pilean Kultur Elkarteak, 27 postakutxatila, 20590, Soraluze edo pilpilean@euskal.net helbide elektronikora.
- 4.- Bertso antzerkiaren gaia librea izango da.
- 5.- Antzerkiaren iraupenak, gutxienez hogei minutukoa izan beharko du.
- 6.- Sariak modu honetan banatuko dira:  
1.saria: 400E eta Txapela.  
2.saria: 200E.
- 7.- Epaitze lanez, bailarako bi bertsolari ezagun eta Soraluzeko Udaleko euskara teknikaria arduratuko dira.
- 8.- Epaileak hala eritiz gero, saririk banatu gabe gera liteke.
- 9.- Saridun bakoitzak sari bana bakarrik jaso lezake.
- 10.- Lan sarituen berri, Urtarrilaren 30ean jakinaraziko da komunikabideen bitartez eta sariak eskura emango dira.
- 11.- Bertso antzerkiaren osagarri modura, prosazko narrazioaren eta musikaren erabilpena ere onartuko dira.
- 12.- Ez da aurrez argitaratu edo antzeztutako lanik onartuko.
- 13.- Lanak ordenagailuz idatzita aurkeztu beharko dira.
- 14.- Lana ezizen batekin sinatu beharko da eta honi atxekitako gutunazal batean egilearen datu pertsonalak jarriko dira (izen abizenak, helbidea eta telefonoa).
- 15.- Pil-Pilean Kultur elkarteak eta Ibilixan Ibilixan bertso eskolak, saridun suertatzen diren bertso antzerkiak argitaratu edo antzezteko eskubidea izango du.
- 16.- Lehiaketan parte hartzen duena, aurrez aipatutako baldintzak betetzera behartua dago.


#### Antolatzaileak:

Pil-pilean Euskara Elkarteak  
Soraluzeko Udala





Fresaketa teknologia



**SORALUCE S.Coop.** • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)  
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: [www.soraluce.com](http://www.soraluce.com)

**EL EUSKALTEGI TE OFRECE:**

- Clases de euskara, a todos los niveles, EGA.
- Precios especiales para: desempleados, padres y estudiantes.
- Subvenciones del ayuntamiento para todos los matriculados.

**Plazo de matricula: 3 de octubre**

**AEK DE SORALUZE**  
Calle Fronton 5, 3º der.  
Tel.: 943 751434

Bai esan?

“n!!&rtx”  
gb?-(0)ng9#  
“ñ# +X!bv

Matricúlate en  
[www.aeknet.net](http://www.aeknet.net)  
**902 362 294**

**aek**

¡díselo  
en  
euskara!